



Eusko Legebiltzarreko Mahaiari

Dani Maeztu Perez Aralar taldeko legebiltzarkideak, indarrean den Erregelamenduaren babesean, ondoko **INTERPELAZIOA** egiten dio **Patxi Lopez Lehendakariari**, "EcoEuskadi 2020 egitasmoaren inguruan":

ZIOA:

2011ko uztailean EcoEuskadi 2020 ingurumen jasangarrirako estrategia aurkeztu zuen Eusko Jaurlaritzak. Gobernu kontseiluak hartutako erabakietan honela laburbiltzen da egitasmoaren oinarria: "EcoEuskadi 2020 estrategian zehazten da zer helburu estrategiko dituen Euskadik garapen jasangarriaren arloan. Hori dela eta, Jaurlaritzaren jardunbide politikoaren zeharkako erreferentzia-puntu berria da. Estrategia horrek erreferentzia-puntua izan nahi du Jaurlaritzaren sailek dituzten estrategia eta plan sektorialetarako".

Dokumentuan bertan esaten da, lehendakaria izango dela strategiaren burua: "Estrategia egiteko eta ezartzeko lidergoa: Lehendakariari dagokio, eta eskuordetzearen bidez, Lehendakariari"; eta estrategia bera prestatzeko, bera izan da arduradun nagusietako bat, eta hala jasotzen da dokumentuan: "EcoEuskadi 2020 estrategia egiteko prozesuaren burua Patxi López lehendakaria izan da, eta sail eta erakunde anitzeko zenbait batzordez osatu da".

Lehendakariak behin baino gehiagotan hitz egin du estrategia horren inguruan. Dokumentuko lehenengo atalean ere, bere hitzak agertzen dira strategiari aipu zuzena eginez: "EcoEuskadi 2020 garapen jasangarriaren eredu berri batera jo ahal izateko zeharkako tresna bat da. Baliabide gutxiago kontsumituz, herria modu orekatuagoan garatzea ahalbidetu behar digu, eta tresna hori erabiliko dugu hazkunde ekonomikoa, gizarte ongizatea eta ingurumen baliabideen mantentzea egoki lotuko dituen ekonomia berrirako aldaketaren motor nagusietako bat bultzatzeko...".

Horren aurrean, hurrengo interpelazioa egiten dio:

INTERPELAZIOA:

Azal dezala, Eusko Jaurlaritzak ze baliabide eta ekimenen bitartez lortuko duen EcoEuskadi 2020 strategiak jasotzen dituen helburuak egikaritzea, 2020 urterako.

Gasteizen, 2011ko uztailearen 14an

Dani Maeztu Perez
Aralar taldeko legebiltzarkidea